

INGENIARITZA ELEKTRIKOKO GRADUA
GRADU AMAIERAKO LANA

***GASOLINDEGI-ELEKTROLINERA BATEN
INSTALAZIO ELEKTRIKOAREN DISEINUA***

3. DOKUMENTUA – ERANSKINAK

Ikaslea: Setien, Fernandez, Aitor

Zuzendaria 1: Aginako, Arri, Zaloa

Ikasturtea: 2020-2021

Data: 2021/02/12

AURKIBIDEA

1	KALKULUAK.....	7
1.1	Instalazio fotovoltaikoaren errendimendua. Galerak.....	7
1.1.1	Poluzioa.....	7
1.1.2	Itzalak.....	7
1.1.3	Inbertsorea.....	7
1.1.4	Temperatura.....	7
1.1.5	Irradiazioa.....	8
1.1.6	Dispertsio parametroa.....	8
1.1.7	KZeko eroalea.....	8
1.1.8	KAko eroalea.....	8
1.2	Panelen arteko distantzia.....	9
1.3	Panel fotovoltaikoak.....	11
1.4	Bihurgailua.....	12
1.5	Tentsio eta korrante maximoen egiaztapena.....	13
1.5.1	Bihurgailuaren tentsio maximoak.....	13
1.5.2	Zirkuitu irekiko tentsioa.....	13
1.5.3	Bihurgailuaren korrante maximoa.....	13
1.5.4	Zirkuitulaburreko korrantea.....	14
1.6	Energia ekoizpena.....	14
1.7	Biltegitratze sistema.....	15
1.8	Eroalea.....	18
1.8.1	Tentsio jauskeraren irizpidea.....	18
1.8.1.1	Korrante zuzena.....	18
1.8.1.2	Korrante alferno trifasikoa.....	19
1.8.2	Korrante maximo onargarriaren irizpidea.....	19
1.8.2.1	Korrante zuzena.....	20
1.8.2.2	Korrante alferno trifasikoa.....	20
1.8.3	Korrante zuzeneko eroalea.....	20
1.8.4	Korrante alferno trifasikoko eroalea.....	24
2	BABES ELEMENTUAK.....	26
2.1	Korrante zuzeneko babes elementuak.....	26
2.1.1	Magnetotermikoa.....	27
2.2	Korrante alferno trifasikoko babes elementuak.....	28

2.2.1	Magnetotermikoa.....	28
2.3	Biltegitratze sistema	29
2.4	Lur harguneak.....	30
2.4.1	Babes eroaleak	30
2.4.2	Instalazioko lur hargunea	30
2.4.3	Instalazio fotovoltaikoaren lurrera jartzea.....	31
2.5	Lur harguneko elektrodoen distantzia minimoa	31
3	SIMULAZIOA PVSYST SOFTWAREAREKIN.....	32
4	SEGURTASUN AZTERLANAK.....	39
4.1.1	Instalazioaren identifikazioa.....	39
4.1.2	Aplikatu beharreko araudia.....	39
4.1.3	Substantzia ezberdinen identifikazioa.....	41
4.1.4	ATEX eremuaren sailkapena.....	42
4.1.5	Elementuen deskribapena.....	43
4.1.5.1	Erregai tanga	43
4.1.5.2	Hornigailuak	44
4.1.5.3	Eraikin Nagusia eta markesina	44
4.1.5.4	Suteen aurkako instalazioa	44
4.1.6	Arrisku ebaluazioa	45
	Arriskuak ebaluatzeko metodoa:.....	46
4.1.7	Neurri zuzentzaileak.....	48
4.1.8	Seinaleztapen plana	50
5	ELEMENTUEN GIDALIBURUAK.....	52
5.1	Modulu fotovoltaikoa.....	52
5.2	Bihurgailua.....	54
5.3	Bateria	58
5.4	Bihurgailu/kargagailua	62
5.5	Karga puntua	64
5.6	Korronte zuzeneko eroalea	66
5.7	Korronte alternoko eroalea.....	69
5.8	Kontagailu adimendua	71
5.9	Korronte zuzeneko koadro elektrikoa.....	73
5.10	Modulu fotovoltaikoen euskarri egitura	76
5.11	Korronte zuzeneko deskargagailua	77
5.12	Korronte zuzeneko etengailu-ebakigailua.....	78
5.13	Korronte zuzeneko etengailu magnetotermikoa	81

Setien, Fernandez, Aitor

5.14	Isolamendu koordinatzailea	83
5.15	Korronte alternoko etengailu diferentziala eta magnetotermikoa	85

IRUDIEN AURKIBIDEA

1. Irudia.	Panelen arteko distantzia.....	9
2. Irudia.	Modulu fotovoltaikoen kokapena gasolindegi-elektrolineran.....	11
3. Irudia.	Sei sarrerako bihurgailuaren paraleloko adarren luzerak.....	22
4. Irudia.	Lau sarrerako bihurgailuaren paraleloko adarren luzerak.....	22
5. Irudia.	Gasolindegi-elektrolineraren diseinua definitzea.....	32
6. Irudia.	Gasolindegi-elektrolineraren kokapena eta koordenatu geografikoak.....	33
7. Irudia.	Gasolindegi-elektrolineraren datu meteorologikoak.....	33
8. Irudia.	Gasolindegi-elektrolineraren izendapena.....	34
9. Irudia.	Gasolindegi-elektrolineraren simulazio aldagaia. Orientazioa.....	34
10. Irudia.	Gasolindegi-elektrolineraren modulu fotovoltaikoak definitzea. Ezaugarri orokorrak	35
11. Irudia.	Gasolindegi-elektrolineraren modulu fotovoltaikoak definitzea. Dimentsioak eta	35
teknologia		
12. Irudia.	Gasolindegi-elektrolineraren bihurgailua definitzea. Parametro nagusiak.....	36
13. Irudia.	Gasolindegi-elektrolineraren bihurgailua definitzea. Efizientzia kurba.....	36
14. Irudia.	Gasolindegi-elektrolineraren bihurgailua definitzea. Dimentsioak eta teknologia ..	37
15. Irudia.	Gasolindegi-elektrolineraren konfigurazio orokorra.....	37
16. Irudia.	Gasolindegi-elektrolineraren hamar azpimultzo.....	37
17. Irudia.	Gasolindegi-elektrolineraren gainontzeko azpimultzoa.....	38
18. Irudia.	ATEX eremuaren sailkapena.....	42

TAULEN AURKIBIDEA

I.Tabla:	Tenperaturaren araberako errendimendu faktorea	7
II.Tabla:	Errendimendu faktoreak	8
III.Tabla:	Panelen arteko distantzia azterketa inklinazio angeluarekiko.....	10
IV.Tabla:	Parke fotovoltaikoko energia elektrikoaren ekoizpen estimazioa	14
V.Tabla:	Fronius Solar Battery 7.5 bateriaren ezaugarriak	17
VI.Tabla:	Korrante zuzeneko sei sarrerako bihurgailuaren eroaleen sekzioak	21
VII.Tabla:	Korrante zuzeneko lau sarrerako bihurgailuaren eroaleen sekzioak.....	21
VIII.Tabla:	TOPSOLAR PV ZZF eroalearen ezaugarriak.....	23
IX.Tabla:	Top Cable POWERFLEX RV-K eroalearen ezaugarriak	24
X.Tabla:	Babes eroaleen eta fase eroaleen arteko erlazioa	30
XI.Tabla:	Babes eroaleen eta fase eroaleen sekzioak	30
XII.Tabla:	Substantzia ezberdinen identifikazioa	41
XIII.Tabla:	LDF 40 erregai-tanga	43
XIV.Tabla:	Arrisku ebaluazio matrizea.....	45
XV.Tabla:	Arriskuak ebaluatzeko metodoa. Ondorioen larritasuna.....	46
XVI.Tabla:	Arriskuak ebaluatzeko metodoa. Arriskuen probabilitatea	46
XVII.Tabla:	Arriskuak ebaluatzeko metodoa. Ondorioak eta probabilitateak.....	47
XVIII.Tabla:	Arriskuak ebaluatzeko metodoa.	47

1 KALKULUAK

Atal honetan gasolindegi-elektrolineraren diseinua eta kalkuluak azaltzen dira.

1.1 Instalazio fotovoltaikoaren errendimendua. Galerak

1.1.1 Poluzioa

Gasolindegi-elektrolinera poluzio iturri handiko inguruan kokatuta ez dagoenez, poluzio errendimendu faktorea 0,97koa aplikatu da.

$$F_p = 0,97$$

1.1.2 Itzalak

Plaka fotovoltaikoak gasolindegi-elektrolinerako sabaian instalatuko dira, etekin handiena atera ahal izateko eta itzalik egon ez dadin. Gainera, zuhaitzik eta eraikinik ez dagoen landa eremu baten kokatuta dagoenez ez dago itzala sortzeko aukera.

Hori dela eta, itzalaren errendimendu faktorea unitarioa dela kontsideratu da.

$$F_i = 1,00$$

1.1.3 Inbertsorea

Instalazioan erabiliko diren inbertsoreen errendimendu faktorea fabrikatzailearen arabera 0,98koa da.

$$F_{in} = 0,98$$

1.1.4 Temperatura

Kontutan izan behar da gasolindegi-elektrolinera instalatuko den eremuaren batz-besteko temperatura ez dela 25 °C-koa, baizik eta 15,9 °C-koa da. I. taulan temperatura ezberdinentzako zuzenketa faktoreak aurkezten dira.

I.Tabla: Tenperaturaren araberako errendimendu faktorea

Temperatura °C-tan	10	15	20	25	30	35
Zuzenketa faktorea	1,11	1,07	1,04	1	0,96	0,92

Beraz, I. taulako datuak interpolatuz 15,9 °C-rako aplikatu beharreko temperatura faktorea 1,065koa da.

$$F_t = 1,065$$

1.1.5 Irradiazioa

Irradiazioari dagokionez estandarra 1000 Wh/m² baino handiagoa da, diseinatutako gasolindegi-elektrolineraren irradiazioa maila urte osoan 1229,9 kWh/m²-koa denez, egunero batezbestekoa 3,37 kWh/m²-koa da. Aipatu beharra dago irradiazioa igotzean korrante jaitsi egiten dela plaka fotovoltaikoetan eta gauza bera gertatzen da lortutako errendimenduan. Horregatik, irradiazioaren errendimendua 0,934koa da.

$$F_{irra} = 0,934$$

1.1.6 Dispertsio parametroa

Potentzia maximoan dispertsio parametroengatik dauden errendimendu galerak direla eta, parametro horien errendimendu faktorea 0,97koa da.

$$F_{pa} = 0,97$$

1.1.7 KZeko eroalea

Tentsio erorketak KZeko eroaleetan %1,5 baino txikiagoa izan dadin aukeratutako errendimendu faktorea 0,98koa da.

$$F_{KZ} = 0,98$$

1.1.8 KAko eroalea

Tentsio erorketak KAko eroaleetan %2 baino txikiagoa izateko aukeratutako errendimendu faktorea 0,97koa da.

$$F_{KA} = 0,97$$

Kalkulatutako errendimenduekin Performance Ratio Global (PRG) zehaztuko da:

$$PRG = F_p \cdot F_i \cdot F_{in} \cdot F_t \cdot F_{irra} \cdot F_{pa} \cdot F_{KZ} \cdot F_{KA} \quad (1)$$

II.Tabla: Errendimendu faktoreak

Zuzenketa faktorea	F_p	F_i	F_{in}	F_t	F_{irra}	F_{pa}	F_{KZ}	F_{KA}
Errendimendu faktorea	0,97	1,00	0,98	1,065	0,934	0,97	0,98	0,97


(1) formularen kalkulaturako errendimenduak ordezkatur:

$$PRG = 0,97 \cdot 1,00 \cdot 0,98 \cdot 1,065 \cdot 0,934 \cdot 0,97 \cdot 0,98 \cdot 0,97 = 0,872$$

Horregatik diseinatutako instalazioaren errendimendu globala urtean zehar % 87,2koa dela kontsideratu daiteke.

1.2 Panelen arteko distantzia

Gasolindegi-elektrolinera diseinatzerako orduan kontutan izan behar da eguzkiaren eraginez modulu fotovoltaikoek sortzen dituzten itzalak. Horiek instalazioaren efizientzia jaisten dute eta horren bitartez kaltegarriak izan daitezkeen tentsio jauskerak eragiten ditu. Hori dela eta, ahalik eta itzal gutxienean izateko helburuarekin, modulu fotovoltaikoen artean utzi beharreko distantzia kalkulatu da.



1. Irudia. Panelen arteko distantzia

Iturria: Egileak moldatua

Panelen arteko distantzia minimoa ondorengo formularen bitartez kalkulatzen da.

$$d = \frac{h}{\tan(61^\circ - \Phi)}$$

Eta modulu bakoitza izango duen altuera kalkulatzeko:

$$h = a \cdot \sin\beta$$

Non;

d	Modulu fotovoltaiko lerroen arteko distantzia [m].
h	Modulu fotovoltaikoen altuera [m].
a	Modulu fotovoltaikoen zabalera neurria [m].
β	Moduluek izango duten inklinazio gradua.
Φ	Kokalekuaren latitudea.

Diseinatutako instalazioan modulu fotovoltaikoen altuera kalkulatzeko erabilitako modulu fotovoltaikoen zabalera neurria jakin behar da. Kasu honetan, Peimar SG 285P modulu fotovoltaikoaren fitxa teknikoan behatuz $a=1,640$ m-koa da.

Beraz, moduluek izango duten posizioa eta izango duten altuera 0° -ko eta 30° -ko inklinazio angeluarekin kalkulatu dira:

III.Tabla: Panelen arteko distantzia azterketa inklinazio angeluarekiko

0°	30°
$h = 1,640 \cdot \sin(0) = 0 \text{ m}$	$h = 1,640 \cdot \sin(30) = 0,82 \text{ m}$
$d = \frac{0}{\tan(61^\circ - 45)} = 0 \text{ m}$	$d = \frac{0,82}{\tan(61^\circ - 45)} = 2,86 \text{ m}$

Eraikita dagoen instalazioko teilatuan instalatuko dira, 8 metroko altueran eta finkapen sistemarako Coplanar KF-102 motatako 416 euskarri egitura erabili dira. Euskarri bakoitzak 4 modulu fotovoltaikoetara konektatuta egongo dira.

Instalazioko teilatua laua denez eta instalazioaren efizientzia energetikoa handitzeko helburuarekin inklinazio gabe instalatu dira, hau da, 0° -ko inklinazioarekin. Era honetan, instalazioko teilatuaren azalera osoa aprobeztatu daiteke eta ez da eguzki jarraitzailearen beharrik.


1.3 Panel fotovoltaikoak

Modulu fotovoltaikoen kopurua zehazteko instalatuko diren panel fotovoltaikoen neurriak ezagutu behar dira. Aukeratutako modulu fotovoltaikoak Peimar markako SG 285P modelo izan da, 0,992 mm eta 1,640 mm-ko aldeak dituena. Gainera, gasolindegi-elektrolineraren zabalerak 50 m eta 100 m-koak izanda, instalazio osoaren azalera 5000 m²-koa da.

Instalazioaren alde bakoitzean 1,5 m utzi dira segurtasun moduan eta guztira 64 adar paraleloan izango ditu. Adar paraleloak binaka kokatu dira eta bi adar paraleloen artean 1 m-ko distantzia utzi da, mantentze-lanak egiteko. Amaitzeko, adar paralelo bakoitzean 26 modulu fotovoltaiko seriean jarri dira azalera osoa aprobetxatzeko.

Modu honetan jarri beharreko modulu fotovoltaiko kopurua ondorengoa da:

$$\text{Modulu fotovoltaiko kopurua: } 64 \text{ adar} \cdot 26 \frac{\text{mod. fotovoltaiko}}{\text{adar}} = 1.664 \text{ mod. fotovoltaiko}$$



2. Irudia. Modulu fotovoltaikoen kokapena gasolindegi-elektrolineran

Iturria: Egileak eginda

1.4 Bihurgailua

Gasolindegi-elektrolineraren modulu fotovoltaikoek ekoiztutako energia elektrikoa bihurgailu batzuetara garraiatu egiten da. Instalazioan zehar erabilitako bihurgailu kopurua parke fotovoltaikoko potentziaren arabera da.

Gasolindegi-elektrolinerako teiltuan modulu fotovoltaikoak instalatu dira segurtasun distantziak minimoak utziz eta guztira 1.664 modulu fotovoltaiko jarri dira.

Peimar markako SG 285P modulu fotovoltaikoek sortzen duten potentzia ondorengo da:

$$P_{FV} = 1.664 \text{ modulu fotovoltaiko} \cdot 285 \frac{\text{W}}{\text{modulu fotovoltaiko}} = 474,24 \text{ kW}$$

Behin modulu fotovoltaikoen bitartez eskuratutako potentzia jakinda, erabili beharreko bihurgailuko potentzia nominala kalkulatu behar da. Horretarako hurrengo formula erabili da:

$$P_{Ib} = PRG \cdot P_{FV} \quad (2)$$

Non:

P_{Ib} : Bihurgailuaren potentzia izendatua [kW].

P_{FV} : Parke fotovoltaikoa ekoiztutako potentzia [kW].

PRG : Parke fotovoltaikoan gertatutako potentzia galerak.

(2) formularen parke fotovoltaikoan ekoiztutako potentzia eta potentzia galeren emaitzak aplikatuz:

$$P_{Ib} = 0,872 \cdot 474,24 \text{ kW} = 413,537 \text{ kW}$$

Beraz, aurreko emaitza bihurgailuek izan beharreko potentzia izendatua da eta aukeratutako ABB markako PVS 100 TL bihurgailuarekin alderatuz, egokia dela ziurtatzen da. Bihurgailu horiek 100 kW-eko potentzia izendatua daukate eta guztira 11 egongo dira.

Hamar bihurgailuk paraleloan aurkitzen diren sei adarretara konektatuko dira eta adar bakoitzean 26 modulu fotovoltaiko daudela kontutan izanik, bihurgailu bakoitzari 156 panel fotovoltaiko konektatuko dira. Gainontzeko bihurgailua soilik lau adar paraleloetara konektatuta dago, beraz, 104 modulu fotovoltaikoetara konektatuta dago.

1.5 Tentsio eta korrante maximoen egiaztapena

Gasolindegi-elektrolineraren konfigurazioa ezagututa, tentsio eta korrante maximoen egiaztapena burutu behar da, modulu fotovoltaikoen tentsio eta korrante maximoak bihurgailuak onartu dezakeen maximoak baino txikiagoak izan behar baitira.

1.5.1 Bihurgailuaren tentsio maximoak

Seriean kokatzen diren modulu fotovoltaikoen tentsioak batzen dira adar bakoitzean dagoen tentsioa jakiteko.

Bihurgailuaren MPP funtzionamendu tentsioa: 480-850 V

$$V_{MPP} = 26 \text{ modulu fotovoltaiko} \cdot 31,6 \frac{\text{V}}{\text{modulu fotovoltaiko}} = 821,6 \text{ V}$$

Lortutako emaitzak aztertuz: 850 V > 821,6 V. Beraz, diseinu baldintzak betetzen dira.

1.5.2 Zirkuitu irekiko tentsioa

Bihurgailu baten zirkuitu irekiko tentsiorik maximoa modulu fotovoltaiko batek daukan tentsiorik handiena da.

Bihurgailuaren zirkuitu irekiko tentsio maximoa: 1.000 V

$$V_{Zireki} = 26 \text{ modulu fotovoltaiko} \cdot 38,03 \frac{\text{V}}{\text{modulu fotovoltaiko}} = 988,78 \text{ V}$$

Aurreko kasuan bezala 1.000 V > 988,78 V. Diseinu baldintzak egokiak dira.

1.5.3 Bihurgailuaren korrante maximoa

Panel fotovoltaiko bakoitza sortzen duen korrante potentzia maximoko puntuan emandako korrantea da. Beraz, korrantearen balio totala bihurgailu bakoitzari konektatutako adar kopuru totalarekin kalkulatu da.

Bihurgailuaren korrante maximoa: 120 A

$$I_{MPP} = 6 \text{ adar} \cdot 9,04 \frac{\text{A}}{\text{adar}} = 54,24 \text{ A}$$

Oraingoa ere 120 A > 54,24 A baldintza betetzen da eta bihurgailuaren korrante maximoa ez da gaindituko.

1.5.4 Zirkuitulaburreko korrontea

Zirkuitulaburren bat gertatzen denean modulu fotovoltaikoek emandako korrontearen balioa maximoa da. Bihurgailuari paraleloan konektatzen zaizkion adar kopuruak kontutan izanda kalkulatzen da.

Bihurgailuaren zirkuitulaburreko korrontea: 145 A

$$I_{ZL} = 6 \text{ adar} \cdot 9,74 \frac{\text{A}}{\text{adar}} = 58,44 \text{ A}$$

Azken kasu honetan, $145 \text{ A} > 58,44 \text{ A}$ denez, diseinu baldintzak egokiak direla ziurtatzen dira.

Aplikaturako kalkuluekin egiaztatu daiteke ABB markako PVS 100 TL bihurgailuak adar paraleloak izango duten tentsio eta korronte maximoak jasan dezaketela.

1.6 Energia ekoizpena

Parke fotovoltaikoaren urteko energia ekoizpena kalkulatzeko faktore ezberdinak kontutan izan behar dira, hala nola, aurretik kalkulaturako galerak, egunak eta modulu fotovoltaikoek sortzen duten energia elektrikoa. Energiaren ekoizpenaren kalkulurako instalazioaren kokalekuan egongo den irradiazioa kontuan izan da. Datu horiek lortzeko prozedura Memoria Eranskinaren [7.8.] atalean azaltzen da, non, diseinurako baldintzak definitzen diren.

Kalkulu horiek burutzeko hilabetez-hilabete egin da eta urte osoko energia ekoizpena hilabete guztiak batuz lortzen da.

IV.Tabla: Parke fotovoltaikoko energia elektrikoaren ekoizpen estimazioa

Hilabetea	Egun kopurua	T [°C]	G (α,β) [kWh/m ² -hila.]	G (α,β) [kWh/m ² -egun]	PRG	P _{FV} [kW]	E [kWh/egun]	E [kWh/hila.]
Urtarrila	31	10	43,5	1,403	0,872	474,24	580,19	17.985,98
Otsaila	29	10	57,6	1,986	0,872	474,24	821,28	23.817,27
Martxoa	31	12	104	3,355	0,872	474,24	1.387,42	43.009,94
Apirila	30	14	131,3	4,377	0,872	474,24	1.810,05	54.301,58
Maiatza	31	16	148,5	4,790	0,872	474,24	1.980,84	61.406,15
Ekaina	30	20	160,1	5,337	0,872	474,24	2.207,05	66.211,45
Uztaila	31	22	160,4	5,174	0,872	474,24	2.139,64	66.328,90
Abuztua	31	23	137	4,419	0,872	474,24	1.827,42	56.650,06
Iraila	30	21	119,8	3,993	0,872	474,24	1.651,25	49.537,63
Urria	31	18	81,1	2,616	0,872	474,24	1.081,81	33.536,22
Azaroa	30	14	48,6	1,620	0,872	474,24	669,93	20.097,91
Abendua	31	11	38,1	1,229	0,872	474,24	508,24	15.755,36
URTEKO EKOIZPEN TOTALA								508.638,45

Beraz, diseinatu berri den gasolindegi-elektrolinerako parke fotovoltaikoak urteko ekoiztutako energia elektriko totala 508,638 MWh-ekoa izango da.

1.7 Biltegitratze sistema

Gasolindegi-elektrolineran erabili diren biltegitratze sistema aukeratzeko orduan, baterien kapazitatea kontutan hartu behar da. Memoria dokumentuko [3.5.5.] atalean ibilgailu elektrikoak erabiltzen dituzten baterien kapazitate ezberdinak ikertu dira eta ibilgailu elektrikoaren batezbesteko baterien kapazitatea 45,57 kWh-koa da. Urte bateko energia ekoizpenaren estimazioa 508.638,45 kWh-koa dela kontsideratuz eta gainera 2020. urtea bisurtea denez, egunero hornituko diren ibilgailu elektrikoak ondorengo formularen arabera lortzen da.

$$E_{egun} = \frac{E_{Estimazioa}}{t_{urte}} \quad (3)$$

Non:

E_{kop} : Egunero hornituko den energia [kW/egun].

$E_{Estimazioa}$: Energia ekoizpen estimazioa urteko [kW/urte].

t_{urte} : Urtean zehar dauden egun kopuruak [egun].

(3) formularen bitartez eguneroko horniketa kalkulatzeko da:

$$E_{kop} = \frac{508.638,45 \frac{\text{kWh}}{\text{urte}}}{\frac{366 \text{ egun}}{1 \text{ urte}}} = 1.389,72 \text{ kWh/egun}$$

Kontutan izanda ibilgailu elektrikoaren batezbesteko baterien kapazitatea, egunero hornituko diren ibilgailu elektriko kopurua kalkulatzeko da.

$$IE_{egun} = \frac{IE_{kop}}{Q_{BB}} \quad (4)$$

IE_{egun} : Egunero hornituko diren ibilgailu elektriko kopurua [ibilgailu elektriko/egun].

Q_{BB} : Ibilgailu elektriko baterien batezbesteko kapazitatea [kWh].

(4) formularen balioak ordezkatuz:

$$IE_{egun} = \frac{1.389,72 \frac{\text{kWh}}{\text{egun}}}{45,57 \frac{\text{kWh}}{\text{ibilgailu elektriko}}} = 30,5 \frac{\text{ibilgailu elektriko}}{\text{egun}}$$

Beraz, parke fotovoltaikoak ekoiztutako energia elektrikoarekin 30,5 ibilgailu elektriko kargatu daitezke egunero, hala ere, instalazioan ekoiztutako energia elektriko guztia ez da bateria bankuan metatuko. Gasolindegi-elektrolineran erabiltutako bateria bankua 6 ibilgailu elektriko kargatzeko ahalmena izango du eta (5) formularen arabera kalkulatzeko da.

$$Q = \frac{Q_{BB} \cdot IE_{kop}}{Sak_{Deskarga}} \quad (5)$$

Q : Bateria sistemen kapazitate minimoa [kWh].

IE_{kop} : Bateria bankuak kargatu ahal dituen ibilgailu elektriko kopurua [ibilgailu elektriko].

$Sak_{Deskarga}$: Baterien sakontasun deskarga [%].

Bateriak ioi-litioko teknologia erabiltzen dutenez, baterien sakontasun deskarga %100ekoa da. Guzti hori (5) formularen ordezkatuz:

$$Q = \frac{45,57 \text{ kWh}}{\text{ibilgailu elektriko}} \cdot 6 \text{ ibilgailu elektriko} = 273,42 \text{ kWh}$$

Bateria sistemen kapazitate minimoarekin gelaxka kopurua kalkulatu da. Baina gelaxkak bi modu ezberdinetan kokatu daitezke, seriean eta paraleloan, non, bi konexio moduekin jarritako baterien kapazitateak gehitu egiten dira. Dena den, instalazioan zehar aurkitzen diren bateriak konektatzeko serieko konexioa burutu egin da, desoreka kaltegarriak baita eztanda arriskuak ekiditeko.

$$G_{kop} = \frac{V_B}{V_G} \quad (6)$$

Non:

G_{kop} : Gelaxka kopurua.

V_B : Bateria tenzio izendatua [V].

V_G : Gelaxka bakoitzaren tenzio izendatua [V/gelaxka].

Beraz, gelaxka kopurua (6) formularekin lortzen da:

$$G_{kop} = \frac{48 \text{ V}}{2 \frac{\text{V}}{\text{gelaxka}}} = 24 \text{ gelaxka}$$

Gelaxka kopurua ezagututa bateria bankua behar duen kapazitate minimoa kalkulatu da.

$$C = \frac{Q}{G_{kop}} \quad (7)$$

Non:

C : Bateria bankuaren kapazitate minimoa [kWh/gelaxka]

$$C = \frac{273,42 \text{ kWh}}{24 \text{ gelaxka}} = 11,40 \frac{\text{kWh}}{\text{gelaxka}}$$

Horrekin batera, deskarga ziklo denbora eta deskarga korrontea kontutan izanik, ondorengo formula aplikatu daiteke.

$$C = I_{desk} \cdot t_{desk} \cdot V_B \quad (8)$$

Non:

I_{desk} : Deskarga korrontea [A].

t_{desk} : Deskarga ziklo denbora [h].

(8) formularen oinarrituz bateria bankuaren deskarga korrontea orduko kalkulatu da.

$$I_{desk} \cdot t_{desk} = \frac{C}{V_B} = \frac{11,40 \frac{\text{kWh}}{\text{gelaxka}}}{2 \frac{\text{V}}{\text{gelaxka}}} = 5,70 \text{ kWh}$$

Setien, Fernandez, Aitor

Bateria horiek momentu oro ibilgailu elektrikoak hornitzeko prest egongo dira. Egunean zehar parke fotovoltaikotik baita baterietatik eskuratuko da energia eta gauean baterietatik eta sare elektrikotik. Hori dela eta, baterien deskarga zikloa 10 ordukoa izango da. Aipatu beharra dago egunean parke fotovoltaikoaren ekoizpena geldirik egonez gero, esate baterako lainoak daudelako, sare elektrikotik lortuko da energia elektrikoak.

Ezaugarri horiek kontutan izanda aukeratutako bateriak Fronius markako Solar Battery 7.5 modeloa aukeratu da, non, deskarga korronea ziklo batean 6.000 Ah-koa den.

V.Tabla: Fronius Solar Battery 7.5 bateriaren ezaugarriak

Modeloa	Solar Battery 7.5
Marka	Fronius
Teknologia	LiFePO4
Kapazitate nominala (120h/ 20°C) [Ah]	7.500
Kapazitatea (10h/20°C) [Ah]	6.000
Bizitza erabilgarria [urte]	>20
Dimentsioak [mm]	995 x 570 x 611
Pisua [kg]	125
Babes maila	IP 20
Lan tenperatura [°C]	23
Komunikazioa	Modbus RTU (RS 485)

Amaitzeko, Solar Battery 7.5 bateriak edukiko duen kapazitatea deskarga ziklo bakoitzeko ondorengo izango da:

$$C_{10} = 6.000 \cdot 48 = 288.000 \text{ Wh} = 288 \text{ kWh}$$

1.8 Eroalea

Modulu fotovoltaikoetatik eskuratutako energia elektrikoa BT-koa denez, eroale ezberdinen kalkuluak burutzeko Behe Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoa erabili da. Honetarako bi irizpide jarraitu dira: tentsio jausiaren eta korrante maximo onargarriaren irizpideak.

Instalazioan zehar bi eroale erabili dira, izan ere, energia elektrikoa korrante zuzenean ekoizten da eta energia hori garraiatzeko korrante alternoan eraldatu egiten da.

1.8.1 Tentsio jauskeraren irizpidea

Tentsio jauskera zirkuituko linea baten hasierako eta amaierako tentsio aldea da, hau da, potentzia diferentzia. BTko Jarraibide Tekniko Osagarriaren 40. atalean ekoizpen fotovoltaiko eta bihurgailuaren artean aurkitzen den KZeko eroalearen tentsio jauskera %1,5 era mugatzen du eta KAn tentsio jauskera bera.

1.8.1.1 Korrante zuzena

Korrante zuzeneko eroalea hautatzerako orduan sekzioaren diametroa datu oso garrantzitsua da. Sekzioaren balioa tentsio jausiaren irizpidea jarraituz lortu daiteke ondorengo formularen bitartez:

$$S = \frac{2 \cdot I \cdot L}{\Delta V \cdot \sigma} \quad (9)$$

Non:

S : Eroalearen sekzio minimoa [mm²].

I : Eroaletik zirkulatzen den korrantea [A].

L : Eroalearen luzera [m].

ΔV : Tentsio jauskera maximo onargarria.

σ : Eroalearen eroankortasuna [m/Ω·mm²].

Aurreko formula eroaleak garraiatuko duten potentziaren arabera jarrita, ondorengo lortzen da:

$$S = \frac{2 \cdot P \cdot L}{\Delta V \cdot \sigma \cdot V} \quad (10)$$

Non:

P : Eroaleak garraiatzen duen potentzia [W].

V : Faseen arteko tentsioa [V].

1.8.1.2 Korrante alferno trifasikoa

Korrante zuzenean bezala, korrante alferno trifasikoko sistemetan erabiltzen diren eroaleen sekzio minimoak kalkulatzeko tentsio jauskeraren irizpidea jarraitzen da. Ondorengo formulatan S sekzio minimoa kalkulatu da korrantearen balioetik abiatuz:

$$S = \frac{\sqrt{3} \cdot I \cdot L \cdot \cos(\varphi)}{\Delta V \cdot \sigma} \quad (11)$$

Non:

S : Eroalearen sekzio minimoa [mm²].

I : Eroaletik zirkulatzen den korrantea [A].

L : Eroalearen luzera [m].

$\cos(\varphi)$: Potentzia faktorea.

ΔV : Tentsio jauskera maximo onargarria.

σ : Eroalearen eroankortasuna [m/Ω·mm²].

Korrantearen funtzioan egon ezik, eroalea garraiatzen duen potentziaren arabera:

$$S = \frac{P \cdot L}{\Delta V \cdot \sigma \cdot V} \quad (12)$$

Non:

P : Eroaleak garraiatzen duen potentzia [W].

V : Lineako eroalearen tentsioa [V].

1.8.2 Korrante maximo onargarriaren irizpidea

Ondorengo formularen bitartez linearen korrante maximo onargarria kalkulatu da:

$$I_{Linea} \leq I_{Max.Onargarri} = I_{Onargarri.Taula} \cdot \sum K_i \quad (13)$$

Non:

I_{Linea} : Lineatik zirkulatuko duen korrantea [A].

$I_{Max.Onargarri}$: Lineatik zirkula daitekeen korrante maximo onargarria [A].

$I_{Onargarri.Taula}$: Isolatzaille moduan erabilitako materialaren eta eroaleak jasan dezakeen tenperatura maximoaren arabeko korrante maximo onargarria [A].

K_i : Aplikatu beharreko faktore zuzentzaileak.

Gainera, eroalearen korrante maximo onargarria sorgailutik irteten den korrante maximoaren %125 gaituz gero, instalazioa dimentsionatuta egon behar da.

1.8.2.1 Korrante zuzena

Instalazioaren korrante zuzeneko aldearen korrantearen balioa ezagutzeko hurrengo formula erabili daiteke:

$$I = \frac{P}{V} \quad (14)$$

Non:

I : Eroaletik zirkulatuko duen korrantea [A].

P : Potentzia aktiboa [W].

V : Tentsioa [V].

1.8.2.2 Korrante alferno trifasikoa

Korrante alferno trifasikoko aldearen korrantea kalkulatzeko, ondorengo adierazpena erabiltzen da:

$$I = \frac{P}{\sqrt{3} \cdot V \cdot \cos(\varphi)}$$

Non:

I : Eroaletik zirkulatuko duen korrantea [A].

P : Potentzia aktiboa [W].

V : sistema trifasikoaren tentsio konposatua [V].

$\cos(\varphi)$: Potentzia faktorea.

1.8.3 Korrante zuzeneko eroalea

Tentsio jausiaren eta korrante maximo onargarriaren irizpideak kontutan izanda, gasolindegi-elektrolineraren korrante zuzeneko aldearen eroale sekzioak kalkulatu dira.

Parke fotovoltaikoan instalatu diren panel fotovoltaikoak 64 adar paralelo ditu. Adar paralelo horiek polo bakarra duten eroaleekin bihurtu eta korrante zuzeneko babes elementuetara konektatzen dira eta instalazio fotovoltaikoaren potentzia jakinda, kasu honetan 474,24 kW-ekoa, sekzio berdineko hamaika bihurtu berdin instalatu dira.

Horrekin batera, paraleloan aurkitzen diren adarrak luzera berdinekoak dira sei sarrerako bihurtu, beraz, egindako kalkuluak bihurtu guztientzat balioko dute.

Eroalea kobreako eta isolatzaile moduan material termoeonkorra erabili denez (XLPE), eroaleen lan tenperatura maximoa 90°C-koa da eta eroankortasunaren balioa 45,49 da.

Beraz, tentsio jauskeraren eta korrante maximo onargarriaren irizpideak jarraituz ondorengo taula eraiki da:

VI.Tabla: Korronte zuzeneko sei sarrerako bihurgailuaren eroaleen sekzioak


Adar zenbakia	Luzera [m]	Tentsioa [V]	Korrontea [A]	σ [$\Omega \cdot m/mm^2$]	ΔV [%]	Sekzioa [mm^2]	Sekzio normalizatua [mm^2]
1. adarra	46,624	821,6	9,04	45,49	1,5	1,50	6
2. adarra	45,632	821,6	9,04	45,49	1,5	1,47	6
3. adarra	44,136	821,6	9,04	45,49	1,5	1,42	6
4. adarra	44,136	821,6	9,04	45,49	1,5	1,42	6
5. adarra	45,632	821,6	9,04	45,49	1,5	1,47	6
6. adarra	46,624	821,6	9,04	45,49	1,5	1,50	6

VII.Tabla: Korronte zuzeneko lau sarrerako bihurgailuaren eroaleen sekzioak

Adar zenbakia	Luzera [m]	Tentsioa [V]	Korrontea [A]	σ [$\Omega \cdot m/mm^2$]	ΔV [%]	Sekzioa [mm^2]	Sekzio normalizatua [mm^2]
1. adarra	45,628	821,6	9,04	45,49	1,5	1,47	6
2. adarra	44,636	821,6	9,04	45,49	1,5	1,44	6
3. adarra	44,636	821,6	9,04	45,49	1,5	1,44	6
4. adarra	45,628	821,6	9,04	45,49	1,5	1,47	6


Luzera bakoitzarekin erabili beharreko sekzioa tentsio jausiaren irizpidearekin kalkulatu egin da, (9) formularekin hain zuzen ere.

Adar bakoitzaren luzera modulu fotovoltaikoak seriean daukaten luzera eta bihurgailura heltzeko behar den luzeren arteko batuketa da. Adar bakoitzean seriean 26 modulu fotovoltaiko jarri dira, bakoitza 1,64 m-ko luzerarekin. Hamar bihurgailuk 6 adar paraleloetara konektatuta egongo dira eta beste bihurgailua 4 adar paraleloetara. Gainera adar paralelo muturren baten erdian finkatuta egongo da. Ondorengo irudian argi eta garbi ikusi daiteke adar bakoitzaren eta bihurgailuaren arteko lineen luzerak.



3. Irudia. Sei sarrerako bihurgailuaren paraleloko adarren luzerak

Iturria: Egileak egina



4. Irudia. Lau sarrerako bihurgailuaren paraleloko adarren luzerak

Iturria: Egileak egina

Kalkuluak burutu eta gero, paraleloan aurkitzen diren adarren eta bihurtuaren arteko lineen sekzioak 6 mm²-koak izango dira. Jarraian, aukeratutako sekzioa egokia dela ziurtatzeko korrante maximo onargarriaren irizpidea erabiliko da. (14) formularekin eroale bakoitzak onartu dezaketen korrante maximoa kalkulatu da, izan ere, eroale horiek modulu fotovoltaikoen zirkuitulaburreko korrante balioaren % 125-a jasateko gain-dimentsionatu behar dira. Gasolindegi-elektrolineran erabilitako modulu fotovoltaikoak Peimar SG 285P motakoak dira eta horien zirkuitulaburreko korrantea 9,55 A-koa da.

$$I_{\text{Eroale_KZ}} \geq 1,25 \cdot 9,55 = 11,94 \text{ A}$$

Behin eroalea jasango duen korrantea gain-dimentsionatuta eta horren sekzioa kalkulatu, aukeratutako eroalearen korrante maximo onargarria ezagutu behar da. Azken hori, kalkulatu den korrante balioa baino handiagoa izan behar da.

Eroaleak egiten duen ibilbidea XXXX metrokoa da.

VIII.Tabla: TOPSOLAR PV ZZF eroalearen ezaugarriak

Sekzioa [mm ²]	Diametroa [mm]	Pisua [kg/km]	Kanpoan [A]	Barruan [A]	Tentsio jauskera [V/A·km]
1 x 2,5	4,8	42	41	39	23,0
1 x 4	5,3	57	55	52	14,3
1 x 6	5,9	76	70	67	9,49
1 x 10	7,0	120	98	93	5,46
1 x 16	8,2	179	132	125	3,47
1 x 25	10,8	294	176	167	2,23
1 x 35	11,9	390	218	207	1,58

VIII. taula begiratu TOPSOLAR PV ZZF H1Z2Z2-K eroalearen kanpoko korrante maximoa lortzen da, kasu honetan 70 A-koa dena. Hala ere, lortutako korrante maximoa ez da benetako balioa izango, eroalean zehar galerak egongo baitira. Eroaletik zirkulatuko duen korrantearen balioa ezagutzeko bi faktore kontutan hartu dira: eroaleen tenperatura eta zirkuitu kopurua. (13) formula garatuz ondorengoa lortzen da:

$$I_{\text{Max}} = ZF_1 \cdot ZF_2 \cdot I_{\text{Max.Onargarri}} \quad (15)$$

Non:

I_{Max} : Eroaletik zirkulatuko duen korrantearen balio erreala [A].

ZF_1 : Eroalearen tenperaturagatik aplikatutako zuzenketa faktorea.

ZF_2 : Eroale kopuruagatik aplikatutako zuzenketa faktorea.

$I_{\text{Max.Onargarri}}$: Eroaletik zirkuitu ahal duen korrante maximo onargarria [A].

TOPSOLAR markako eroalearen isolamendua sare-poli(et)ilenoa izanda (XLPE) jasan dezakeen tenperatura maximoa 90 °C-koa da. Hori dela eta, UNE 50618:2015 arauaren arabera $ZF_1 = 0,75$ ko zuzenketa faktorea aplikatu behar da. Arau honek sistema fotovoltaikoentzako eroale elektrikoaren inguruko tenperatura kontutan hartzen du.

Bihurgailu bakoitzera sei edo lau eroale konektatuko dira, bat adar paralelo bakoitzeko. Gainera, eroalea instalazioaren sabaiko geruza bakarrean instalatu direnez, UNE-HD 60365-5-52:2014 arauaren

arabera $ZF_2 = 0,60$ zuzenketa faktore aplikatuko da. Beraz, eroaletik zirkulatuko duen korrontearen benetako balioa (15) formularen bitartez kalkulatzen da.

$$I_{\text{Max}} = 0,75 \cdot 0,60 \cdot 55 = 24,75 \text{ A}$$

Korronte zuzeneko eroaleari dagokionez, esan beharra dago $I_{\text{Eroale}_{KZ}} = 11,94 \text{ A} < 24,75 \text{ A} = I_{\text{Max}}$ betetzen dela eta aukeraturako eroalea onargarria da.

1.8.4 Korronte alerno trifasikoko eroalea

Korronte alerno trifasikoko eroalea bihurgailutik irten eta babes koadro nagusira heltzen da. Eroaleak egiten duen ibilbidearen luzera 50 metrokoa da eta guztira 5 eroaleez osatuta dago (3 fase, lurra eta neutroa).

Korronte alernoko tentsio jausiaren irizpidea jarraituz erabili beharreko eroalearen sekzioa kalkulatu da. Potentzia faktorearen indizea 0,90ean finkatu eta 1,50eko tentsio jauskera hartu da. Gainera, korronte alernoko irteeraren korronte maximoa ABB markako PV 100 TL bihurgailuaren fitxa teknikitik eskuratu da eta 145 Akoa da. Beraz, datu horiek (11) formularen ordezkatuz:

$$S = \frac{\sqrt{3} \cdot 50 \cdot 145 \cdot 0,90}{45,49 \cdot 400 \cdot 1,5} \cdot 100 = 41,41 \text{ mm}^2$$

Korronte alernoko eroaleren kalkuluak burutu eta gero 41,41 mm²-ko sekzioa lortu da.

Korronte maximo onargarriaren irizpidearen formularekin korronte alernoko eroalearen korronte maximo onargarria kalkulatzen da, non, bihurgailuak eman ahal duen korronte maximoaren %125 den.

$$I_{\text{Eroale}_{KA}} \geq 1,25 \cdot 145 = 181,25 \text{ A}$$

Korronte alerno trifasikoko eroaleak 181,25 A-ko korrontea jasan beharko dute. Datu esanguratsu hori kontutan harturik Top Cable markako POWERFLEX RV-K modeloa aukeratu da eta eroaleak jasan dezakeen korronte maximo onargarria IX. taulatik eskuratu da.

IX.Tabla: Top Cable POWERFLEX RV-K eroalearen ezaugarriak

Sekzioa [mm ²]	Diametroa [mm]	Pisua [kg/km]	Kanpoan [A]	Barruan [A]	Tentsio jauskera [V/A·km]
5 G 1,5	10,4	153	23	22	29,5
5 G 2,5	11,6	213	32	29	17,7
5 G 4	13,2	298	42	37	11
5 G 6	14,7	403	54	46	7,32
5 G 10	17,1	624	75	51	4,23
5 G 16	20,2	931	100	79	2,68
5 G 25	26,6	1.555	127	101	1,73
5 G 35	29,3	2.076	158	122	1,23
5 G 50	34,5	2.895	192	144	0,86
5 G 70	38,7	3.929	246	178	0,603
5 G 95	44,6	5.189	298	211	0,457
5 G 120	49,7	6.560	346	240	0,357
5 G 150	55,6	8.144	399	271	0,286

Setien, Fernandez, Aitor

Kasu honetan, 70 mm²-ko sekzioa duen eroale horren korrante maximo onargarria 178 A-koa da. Ingurugiroko tenperaturaren zuzenketa koefizientea aplikatuta benetako korrante maximo onargarria kalkulatzen da.

$$I_{\text{Max_onargarria}} = ZF \cdot I_{\text{Max}}$$

Non:

$I_{\text{Max_onargarria}}$: Eroaletik zirkulatuko duen korrontearen balioa [A].

I_{Max} : Eroaletik zirkulatuko duen korrante maximoa [A].

ZF: Tenperatura 40 °C ez delako zuzenketa faktorea.

Ingurugiroko tenperatura 25 °C-koa hartu da eta zuzenketa faktorearen balioa 1,14 da.

$$I_{\text{Max_onargarria}} = 1,14 \cdot 178 = 202,92 \text{ A}$$

Korrante alferno trifasikoko eroalearen sekzioa egokia izan den egiaztatzeke:

$$I_{\text{Eroale_KA}} = 181,25 \text{ A} < 202,92 \text{ A} = I_{\text{Max_onargarria}}$$

2 BABES ELEMENTUAK

Gasolindegi-elektrolinerako instalazioan zehar hartu beharreko babes neurriak ezinbestekoak dira pertsonen eta tresnen segurtasuna bermatzeko. Gainera, sistema fotovoltaikoaren funtzionamendua ez du influentziarik izango sarera konektatuta dauden gainontzeko elementuetan.

Hori dela eta, diseinatu den instalazio fotovoltaikoaren elementuak babesteko beharrezkoak diren babes ekipoak aukeratzeko kalkuluak burutu dira.

2.1 Korronte zuzeneko babes elementuak

Diseinatutako instalazioko ABB markako PV 100 TL bihurgailuak hainbat babes neurri barneratuta dauzka. Besteak beste:

- Isolatzailearen kontrolatzailea: Isolatzailearen kontrolatzailea KZ-ean erabiltzen den babesa da. Babes horren bitartez eroalearen isolamenduaren egoera detektatzen du, hori positiboa zein negatiboa izanda lur hartzearen kontra. Bi gailu ezberdinekin osaturik dagoen babesa da; alde batetik isolamendu zaintzailea eta bestetik KZ-eko ebakitzaile moduan aritzen da. Zirkuituan egongo den tentsio handiena tenperatura minimoarekin eta zirkuitu irekiko egoeran ematen da. 1500 V-eko tentsioraino funtzionatzen du.
- Gaintentsio deskargagailua: Instalazioan deskarga atmosferikoengatik emandako gaintentsioez babesteko erabiltzen diren dispositiboak dira. Gaintentsio deskargagailuen funtzionamendu printzipioa deskarga atmosferikoengatik emandako gaintentsioei muga bat ezartzean oinarritzen da eta linea eta lurraren artean konektatzen dira. Denbora guztian sistemara konektatuta daude baina egoera normalean ez dute eraginik izango. PVS 100 TL bihurgailuaren gaintentsio deskargagailuak erabiltzen duen babes maila 2-koa da, monitorizazioarekin.
- Alderantzizko polaritate babesa: Karga el zirkuituaren artean fusible bat konektatzean datza eta iturriarekin paraleloan aurkitzen den diodo batekin babestea. Korronte iturria polaritate egokiarekin konektatuz gero, zirkuitua funtzionamendu normalean arituko da. Kasu honetan, mugatua dagoen korronte iturritik egiten da.
- Potentzia ebakigailua: Zirkuituaren zati ezberdinak isolatzen duen dispositibo mekanikoa da. Baldintza normaletan ematen diren korronteak eta zehaztutako denbora tarte bateko zirkuitulaburrak jasateko gai da. Instalazioan mantentze lanak burutzerakoan, zirkuituen deskonexioa bermatzeko erabiltzen dira. Korronte zuzeneko ebakigailuaren ahalmena ondorengoak da: 50 A eta 1.000 V.
- Fusiblea: Panel fotovoltaikoetatik inbertsorera zirkuitu elektrikoaren adar bakoitzean fusible bat jarri da. Fusibleen ahalmena 15 A eta 1.000 V-koa da baina fusiblearen tamaina maximo onargarria 20 A-koa da.

2.1.1 Magnetotermikoa

Korrante zuzeneko magnetotermikoaren kalkulurako konektatuko diren adar kopurua kontutan izan da. Magnetotermikoak modulu fotovoltaikoen eta bihurgailuaren artean kokatuko dira, bat bihurgailu bakoitzeko. Hori dela eta, magnetotermikoaren kalkulurako adar kopuru handienarekin egin da.

Magnetotermikoa behar bezala aukeratzeko ondorengo baldintza aztertu da:

$$I_b < I_n < I_z$$

Non:

I_b : Lineako korrantea [A].

I_n : Magnetotermikoaren korrante izendatua [A].

I_z : Eroalearen korrante maximo onargarria [A].

Lineako korrantea lineatik zirkulatuko duen korrantea da eta babestuko dituen adar paralelo kopurua eta moduluen I_{mp} arteko biderketarekin lortzen da. Beraz:

$$I_b = 6 \text{ adar paralelo} \cdot 9,04 \frac{A}{\text{modulu}} = 54,24 \text{ A}$$

Eroalearen sekzioa 6 mm²-koa denez, eroalearen korrante maximo onargarria 70 A-koa da.

Magnetotermikoaren aukeratzeko aztertutako baldintza egiaztatuz, magnetotermikoaren korrante minimo nominala ondorengoa da:

$$I_b < I_n < I_z \\ 54,24 \text{ A} < I_n < 70 \text{ A} \rightarrow I_n = 63 \text{ A}$$

2.2 Korrante alferno trifasikoko babes elementuak

Diseinatutako instalazioko korrante alferno trifasikoko aldean hainbat babes neurri aurkitu daitezke. Bihurgailuak korrante zuzeneko aldean bezala, korrante alfernoan beste hainbat babes integratuta darama. Besteak beste:

- Gain-intentsitate aurkako babesa: Kanpoko korrante alfernoko zirkuituetan gertatu daitekeen gain-intentsitate maximoaren balioa 225 A-koa da.
- Irteerako gaintentsio aurkako babesa: Ordezkarriak diren gaintentsio aurkako babes dispositiboak dira. Babes maila 2-koa da, monitorizazioarekin.

2.2.1 Magnetotermikoa

Magnetotermikoa behar bezala aukeratzeko, korrante zuzeneko magnetotermikoaren baldintza bera aztertu da:

$$I_b < I_n < I_z$$

Non:

I_b : Lineako korrantea [A].

I_n : Magnetotermikoaren korrante izendatua [A].

I_z : Eroalearen korrante maximo onargarria [A].

Bihurgailuek sare elektrikoari eman dezakeen potentzia maximoetik lineako korrantearen balioa lortzen da. Beraz, lineako korrantearen kalkulurako bihurgailuetara konektatu diren modulu fotovoltaikoen kopuru maximoa hartu da, non, seriean konektatuta dauden 26 modulu fotovoltaiko diren eta gehienez 6 adar paralelo konektatzen diren. Hori dela eta, ondorengo formula aplikatu da:

$$I_b = 26 \frac{\text{modulu fotovoltaiko}}{\text{adar paralelo}} \cdot 6 \text{ adar paralelo} \cdot 285 \frac{W}{\text{modulu fotovoltaiko}} = 44.460 W$$

Behin bihurgailuek sareari eman dezaketen potentzia jakinda, Kalkuluen Eranskinetako 2.8.2.2. ataleko formula aplikatuz, lineatik zirkulatuko duen korrantea lortzen da. Gainera, sarerako konexioa 400 V-etan egin da eta IDAeren Zehaztapen Teknikoaren arabera instalazio fotovoltaikoek ematen duten potentzia faktorea unitarioa da. Horregatik:

$$I = \frac{P}{\sqrt{3} \cdot V \cdot \cos(\varphi)} = \frac{44.460}{\sqrt{3} \cdot 400 \cdot 1} = 64,17 A$$

Korrante alfernoko magnetotermikoaren kalkulurako erabilitako eroalearen sekzioa kontutan izan da eroalearen korrante maximo onargarria ezagutzen da. Kasu honetan, eroalearen sekzioa 70 mm²-ko da eta fitxa teknikoan behatuz eroalearen korrante maximo onargarria 202,92 A-koa da.

Magnetotermikoaren baldintza berriro aztertuz:

$$I_b < I_n < I_z$$

$$64,17 A < I_n < 202,92 A \rightarrow I_n = 80 A$$

Bihurgailuaren eta sare elektrikoaren konexio puntuaren artean instalatutako etengailu magnetotermikoek 100 A-ko korrante nominala izango dute.

2.3 Biltegitratze sistema

Biltegitratze sisteman zehar eman daitezkeen gainkargak eta zirkuitulaburrak ekiditeko babes sistemak integratuta eramaten ditu. Ohm-eko legean oinarrituz arazo horiek ekidingo dituen etengailu magnetotermikoa hautatu da.

$$I_{ZL} = \frac{V_B}{R_I} \quad (21)$$

Non:

I_{ZL} : Zirkuitu laburreko korronea [A].

V_B : Tentsio izendatua [V].

R_I : Barneko erresistentzia [Ω].

Bateria guztira kargatuta dagoeneko tentsio izendatua 2 V-ekoa da eta horien barneko erresistentzia 0,20 m Ω dira. Emaitza horiek (21) formulatan sartuta ondorengoa lortzen da:

$$I_{ZL} = \frac{2 \text{ V}}{0,20 \text{ m}\Omega} = 10 \text{ kA}$$

(21) formulatik lortutako zirkuitulaburreko korronearen emaitza aztertuz, etengailu magnetotermikoaren ahalmena zirkuitulaburreko korronea baino handiagoa izan behar da.

2.4 Lur harguneak

Gasolindegi-elektrolinerako instalazio fotovoltaikoan erabili diren lur harguneak JTO-BT-18an agertzen diren argibideen arabera diseinatu dira.

Lur hargune guztiak, hargune bakar batera lotzen dira eta lur hargune orokor hori eta enpresa banatzailearen lur hargunea independenteak dira BTko erregelamenduan adierazten den bezala.

2.4.1 Babes eroaleak

Instalazioan erabilitako eroaleak eta lur hargune eroaleak kobrekoak dira.

X. taulan faseko eroaleen eta horien babeserako eroaleko sekzioen arteko erlazioa ikusi daiteke.

X.Tabla: Babes eroaleen eta fase eroaleen arteko erlazioa

Fase eroaleen sekzioa S (mm ²)	Babes eroaleen sekzio minimoa S_b (mm ²)
$S \leq 16$	$S_b = S$
$16 < S \leq 35$	$S_b = 16$
$S > 35$	$S_b = S/2$

Beraz, aurreko erlazioak kontutan izanda horiek dira eroaleen sekzioak:

XI.Tabla: Babes eroaleen eta fase eroaleen sekzioak

Multzoa	Fase eroaleen sekzioa S (mm ²)	Babes eroaleen sekzio minimoa S_b (mm ²)
Korronte zuzeneko eroalea	6	6
Korronte alferno trifasikoko eroalea	70	35

2.4.2 Instalazioko lur hargunea

Gasolindegi-elektrolineraren instalazio fotovoltaikoa kanpoan kokatuta dagoenez bustita dagoen lokal bezala hartu da eta ondorioz JTO-BT-30an agertzen diren argibideak jarraitu dira.

Lur hargune hori mm²-ko sekzioa duen, 0,5 m-tara lurperatura dagoen eta 10 m-ko luzera duen eroalearekin sarera konektatzen da.

Kontutan izanda lurraren erresistibitatea 200 Ω·m-koa dela, lurraren erresistentzia hurrengo formularen bitartez kalkulatzen da:

$$R_t = \frac{2 \cdot \rho}{L} \quad (22)$$

(22) formularen balioak ordezkatuz:

$$R_t = \frac{2 \cdot 200}{10} = 40 \Omega$$

Ukipen tentsioa 24 V baino txikiagoa izan behar denez:

$$V_d = R_t \cdot I_d \quad (23)$$

Non:

V_d : Akats tentsioa= 24 V

R_t : Lur hargunearen erresistentzia= 40 Ω

I_d : Akats intentsitatea= 0,3 A

(23) formulatik akats tentsioaren balioa lortu da:

$$V_d = 40 \cdot 0,3 = 12 \text{ V} < 24 \text{ V}$$

Aurreko baldintza betetzen denez, lurperatutako eroalearekin nahikoa da. Baina erresistentzia txikitzeko eta lur hartze sistema hobetzeko helburuarekin, 2 m-ko pika bertikala jarri da instalazioan.

$$\frac{1}{R_t} = \frac{1}{R_e} + \frac{1}{R_{pika} \cdot L} \quad (24)$$

Non:

R_e : Eroalearen erresistentzia= 50 Ω

(24) formulatik pika bakoitzaren erresistentziaren balioa kalkulatzen da. Kasu honetan, R_{pika} = 100 Ω -eko balioa dauka.

2.4.3 Instalazio fotovoltaikoaren lurrera jartzea

Lurrera jartzeak, lurrari dagokionez instalazioko masa metalikoek aurkeztu dezaketen tentsio diferentzia mugatzeko helburuarekin ezartzen dira. Horrela, instalazio osoan zehar eta gertuko azaleretan ez da potentzial-diferentzia arriskutsurik agertuko eta aldi berean, jatorri atmosferikoengandik emandako deskarga korronteak lurrera deribatzen dira. Gainera, babes elementuen eragitea ziurtatzen da eta material elektrikoaren matxura murrizten dira.

BTko sarera konektatuta dagoen instalazio fotovoltaikoa denez, BT aldeko lurrera jartzea 900/2015 Errege Dekretuan adierazitako jarraituz egin da.

BTko Erregelamendu Elektroteknikoaren arabera instalazio fotovoltaikoaren korronte zuzeneko zein korronte alternoko masa guztiak, lur berdinerara konektatuta egon behar dira. Hau da, lur hargune hori lberdrolako sare puntuko neutroaren independentea da.

2.5 Lur harguneko elektrodoen distantzia minimoa

Zerbitzuko lur harguneko elektrodoak akatsa gertatzean tentsio altuak jasan ez dezaten, lur harguneko elektrodoen distantzia minimoa errespetatu behar da.

$$D_{min} = \frac{\rho \cdot I_d}{2.000 \cdot \pi} = \frac{200 \cdot 703,19}{2.000 \cdot \pi} = 22,38 \text{ m}$$

Beraz, transformazio guneko babes eta zerbitzuko lurren arteko distantzia 22,38 m-koa izan da.

3 SIMULAZIOA PVSYST SOFTWAREAREKIN

Simulazio azterketan emaitza zehatzena lortzeko helburuarekin kalkulu softwarea erabiltzea erabaki da. Instalazioaren dimentsionamendua egiteko erabili ahal diren metodoak zehatz eta mehatz aztertu ondoren, PVSYST softwarearen 6.8.7 bertsioa egokiena bezala ondorioztatu da. Beraz, gasolindegi-elektrolinerako simulazioak PVSYST software programarekin burutu dira.

Mundu osoan erabiltzen den software horren bitartez sistema fotovoltaikoaren diseinua eta simulazioak gauzatu dira. Modu honetan, sistema konplexuen funtzionamendu azterketa egitea ahalbidetzen du eta aldi berean, arkitektoek, ingeniariak, ikerlariek eta ikasleek erabiltzen duten erraminta da.

Proiektuaren plangintza fasean produkzioaren kalkulua, azterketa zehatza, dimentsionamendua eta orduko estimazioa software horren funtsezko ezaugarriak dira. Ezaugarri guzti horiekin diseinatzaileak eskatutako parametro gehienak simulatu dira eta azkenean simulazio txosten integrala lortzen lagundu du.

Lehenik eta behin, PVSYST programan proiektuaren diseinua definitu da.



5. Irudia. Gasolindegi-elektrolineraren diseinua definitzea.

Iturria: PVSYST 6.8.7 software programa

Setien, Fernandez, Aitor

Instalazioaren diseinua definitzeko, gasolindegi-elektrolineraren kokapena eta koordenatu geografikoak adierazi dira.




The screenshot shows the 'Ubicación' (Location) and 'Coordenadas Geográficas' (Geographic Coordinates) sections of the PVSYS 6.8.7 software. The 'Ubicación' section includes a text field for 'Nombre del sitio' (Site Name) with 'Renteria, Gipuzkoa' entered, and dropdown menus for 'País' (Country) set to 'Spain' and 'Región' (Region) set to 'Europa'. A button 'Obtener de coordenadas' is visible. The 'Coordenadas Geográficas' section has input fields for 'Latitud' (Latitude) as 43.3120, 'Longitud' (Longitude) as -1.9023, 'Altitud' (Altitude) as 24, and 'Huso horario' (Time zone) as 1.0. It also includes a 'Traectorias del sol' (Sun trajectories) button and an 'Obtener del nombre' (Get name) button. On the right, there is a 'Importación meteorología' (Weather import) section with radio buttons for 'Meteonorm 7.2', 'NASA-SSE', 'PVGIS TMY', and 'NREL / NSRDB TMY', and an 'Importar' (Import) button. Below that, there is a 'Tabla E/S (Excel)' (I/O Table (Excel)) section with 'Importar', 'Exportar línea', and 'Exportar tabla' buttons.

6. Irudia. Gasolindegi-elektrolineraren kokapena eta koordenatu geografikoak

Iturria: PVSYS 6.8.7 software programa

PVSYS programak Meteonorm datuen azken fitxategiko paketeak biltzen ditu, baita erabiltzaileak definitutako datuak ere inportatu daitezke. Gasolindegi-elektrolinerako kokapenaren ezaugarri meteorologikoak hilabeteko eta urteko azaltzen dira, horrela, kalkulu zehatzagoa burutu daiteke.



The screenshot shows the 'Datos Requeridos' (Required Data) section of the PVSYS 6.8.7 software. It displays a table of meteorological data for the site 'Renteria, Gipuzkoa (Spain)'. The data is organized by month and includes columns for 'Irradiación global horizontal' (Global horizontal irradiation), 'Irradiación difusa horizontal' (Diffuse horizontal irradiation), 'Temperatura' (Temperature), 'Velocidad del Viento' (Wind speed), 'Linke Turbidity', and 'Relative Humidity'. The units are kWh/m².mes, °C, m/s, [-], and % respectively. The table shows data for each month from January to December, with annual totals at the bottom. The 'Irradiación global horizontal variabilidad de un año al otro' (Annual global horizontal irradiation variability) is noted as 2.5%. On the right, there are checkboxes for 'Datos Requeridos' (Irradiación global horizontal, Temp. Exterior Media) and 'Datos adicionales' (Irradiación difusa horizontal, Velocidad del viento, Linke Turbidity, Relative Humidity). Below the table, there are buttons for 'Nuevo sitio', 'Imprimir', 'Anular', and 'OK'.


	Irradiación global horizontal kWh/m².mes	Irradiación difusa horizontal kWh/m².mes	Temperatura °C	Velocidad del Viento m/s	Linke Turbidity [-]	Relative Humidity %
Enero	44.0	21.9	8.5	1.89	3.291	80.3
Febrero	58.1	34.4	9.2	1.90	3.082	75.4
Marzo	104.7	56.2	12.3	1.99	3.285	69.3
Abril	133.0	67.4	13.7	1.90	3.151	71.5
Mayo	150.3	77.7	17.2	1.59	3.082	72.0
Junio	162.6	92.6	20.2	1.39	3.414	73.7
Julio	162.8	87.2	21.8	1.50	3.285	72.1
Agosto	139.0	76.0	21.9	1.39	3.414	74.5
Septiembre	120.1	51.2	19.1	1.40	3.082	77.9
Octubre	80.9	47.0	16.9	1.80	3.151	74.6
Noviembre	48.8	26.6	11.5	2.00	2.866	78.6
Diciembre	37.8	22.4	8.8	2.00	2.714	79.7
Año	1242.2	660.5	15.1	1.7	3.110	75.0

Irradiación global horizontal variabilidad de un año al otro 2.5%

7. Irudia. Gasolindegi-elektrolineraren datu meteorologikoak

Iturria: PVSYS 6.8.7 software programa


Instalazioaren kokapena, koordenatu geografikoak eta datu meteorologiako definiturik, gasolindegi-elektrolinera izendatuta geratu da.



8. Irudia. Gasolindegi-elektrolineraren izendapena

Iturria: PVSYST 6.8.7 software programa

Gainera, parke fotovoltaikoa osotzen duten modulu fotovoltaikoen inklinazio angelua definitu da.



9. Irudia. Gasolindegi-elektrolineraren simulazio aldagaia. Orientazioa

Iturria: PVSYST 6.8.7 software programa

Setien, Fernandez, Aitor


